

**ORRATZ FIN BIDEZKO ZIZTADA XURGATZAILEA (OFZX) –OTA-  
PUNCION ASPIRATIVA CON AGUJA FINA (PAAF) –TAC–**

Zure gorputzeko leku zehatz batetik ehun-lagin bat hartzea da **ORRATZ FIN BIDEZKO ZIZTADA XURGATZAILEA** egitearen helburua da, hura analizatu ahal izateko.

Leku horretara sartzeko orratz fin batzuk erabiltzen dira; orratz horiek zehaztasunez bideratzen dira irudia tratatzeko sistemen bitartez (OTA). Horri esker, aztertu nahi den leku zehatzera sartzeko aukera dago.

Interbentzioa egin aurretik, proba batzuk egiten dira odolaren koagulazioa egokia ote den begiratzeko; horretarako, anestesia lokala ematen da azalean, zistatu beharko den lekuan.

**GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK**

Proban zehar, honelako ondorioak ager daitezke:

- Azalean erresumina agertzea anestesia ematearen ondorioz. (**SARRITAN** gertatzen da)
- Mina sentitzea proba egiten denean. (**SARRITAN** gertatzen da)
- Hematoma bat sor daiteke zitzadaren ingurunean. (**SARRITAN** gertatzen da)
- Pneumotoraxa (pleura-barrunbean airea); arteria eta zainetako fistulak edo infekzioak agertzea (zabaltzen badira –sepsia– oso-oso larriak izan daitezke). (**OSO NEKEZ GERTATZEN DIRA**)

EZ DA PROBA EGIN BEHAR HAURDUN EGONEZ GERO, edo HORREN SUSMORIK EDUKIZ GERO, erradiazio ionizatzailea erabiltzen delako.

**PAZIENTEA PRESTATZEA**

- **BARAURIK** joan behar zara.

**BEREN BEREGI EMANDAKO BAIMENA**

Praktika Kliniko Egokiak eta pazienteen eskubideen defentsa direla-eta, eskatzen dizugu idatziz adierazteko proba egiteko baimena ematen duzula. Beraz, proba egiteko eskatzen den egunean, **Baimen Informatua** emango dizute; eta hura sinatu ezean, ezingo da proba egin.

La **PUNCIÓN ASPIRATIVA CON AGUJA FINA** tiene como objetivo tomar una muestra de los tejidos de una zona de su organismo para analizarla.

El acceso a dicha zona se realiza mediante unas agujas finas que se guían de forma precisa por sistemas de tratamiento de la imagen (TAC) lo que permite acceder a la zona concreta que se quiere estudiar.

Antes de la intervención se realizan pruebas para comprobar la coagulación de la sangre, se procede a aplicar anestesia local en la zona de la piel donde se realiza la punción (pinchazo).

**POSIBLES COMPLICACIONES**

Durante la prueba pueden aparecer las siguientes situaciones, que incluyen una estimación aproximada sobre la probabilidad de su aparición:

- Escozor en la piel debido a la administración de anestesia **PROBABLE**.
- Percepción de dolor durante la prueba **PROBABLE**.
- Se puede producir un hematoma en la zona de la punción. **PROBABLE**
- Aparición de neumotórax (aire en la cavidad pleural), fistulas arteriovenosas o infecciones que, si se generalizan (sepsis) pueden llegar a ser de extrema gravedad. **MUY POCO PROBABLE**

Como en toda exploración que emplea radiación ionizante, **NO DEBERÁ SOMETERSE A ELLA SI ESTA EMBARAZADA O SUPONE ESTARLO**.

**PREPARACIÓN DEL PACIENTE**

- Deberá acudir **EN AYUNAS**.

**AUTORIZACIÓN EXPRESA**

Las Buenas Prácticas Clínicas y la defensa de los derechos de los pacientes nos obligan a solicitarle, por escrito, una autorización formal para poder realizarle la prueba. Por lo tanto, el día de la solicitud de la prueba le será entregado un **Consentimiento Informado** sin cuya firma no podrá realizarse dicha prueba.